



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
186. zkia . 2006ko maiatza

HONDARRIBIKO UDALA . EUSKARA BATZORDEA . DOHAIN



EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO HITZARMENA

4-11. Herrian barrena

12-13. Elkarrizketa: Harri-Zulatzaille taldea

16-17. Euskara sustatzeko hitzarmena

20. Zubiaundi zubia Jaitzubian

27. Gazte Informazio Bulegoa

30-31. Apirileko demografia

JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



San Pedro, 33
☎ 943 11 02 01
20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



Aliprox
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI


TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea · Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



Hawaii

Errebellin kalea 3 behea

Tel. 943 64 48 00 • Lantegiko Tel. 943 64 56 45 • Faxe 943 64 44 97

20280 HONDARRIBIA

EUSKAL KANTUA HONDARRIBIAN



Euskal Herriak musika tradizio handia du, ugari dira bertan sortutako konpositoreak edo musikariak (Sarasate, Arriaga, Gorriti, Guridi, Bernaola, Escudero, etabar). Nazioarteko fama lortu duten kantariak edo abesbatzak daude (Gayarre, Arteta, edo Donostiko Orfeoia, adibidez). 60 hamarkadan, folk munduari eta protesta kantari loturiko euskal kantagintza berrian hainbat kantari edo talde agertu ziren: Laboa, Lertxundi, Lete, Valverde, Oskorri, etabar; orduan "la chanson engagée"ren garaia zen. Gero pop eta rock euskal talde eza-gunak sortu ziren (besteak beste Negu Gorriak, Kortatu, Herzainak, Su Ta Gar, Egan, Barrikada,...).

Gure herrian bertan euskal kantuari loturiko izen aipagarriak ditugu: Txomin eta Urbil Artola kantariak, Mikel Errazkin Hirusta Records diskoetxearen burua; Javier Busto, Eskifaiarentzat eta beste hainbat abesbatzarentzat lan ugari konposatu dituen eta dozena bat abesbatza daude urtean zehar aritzen direnak.

Gaur egun estilo eta erritmo guztietan bizirik dago euskal kantua: haur kantak, kantu herrikoiak, abesbatzak, kantautoreak, rock-kantariak, eta baita bertsolariak edo eliza kantak ere. Gure kulturaren espresio naturala izanik, euskal kantua gure arbasoen ondarea transmititzeko bide aparta dugu, eta horregatik euskararen normalizaziorako eragin handia duela bada-kigu. Euskal kantua jendea batzeko bidea dela ikusten dugu, hiru osagai hauek elkartzen dituelako: musika, euskara eta aisialdia. Hiru arloak erraz uztartzen direla argi dago, eta eus-

kara sustatzeko tresna interesgarria da, batez ere belaunaldi guztietara jotzen duelako: haurrak, gazteak eta helduak. Gainera, kantuen hitzak idazteko sormen artistikoa bizirik dagoenez, errepertorioak berritzen joaten dira.

Gero eta ugariagoak dira gure herrietan zehar antolatzen diren euskal kantu bilerak, kantu tradizionalari lotuta. Udalek edo euskal elkarteek lagun batzuk bildu, musikari bat edo besteren laguntzarekin, abestien testuak banatu eta listo, kantuz haste-ko gogoarekin denok. Ekitaldi berdintsuak prestatzen dituzte euskal herritik kanpo dauden euskal komunitateen artean ere, Hego Ameriketara, Estatu batuetara edo atzerriko beste euskal etxe askotan.

Maiatzaren 28an, goizeko 11:30etan Gipuzkoa Plazan ospatu-ko den 27. Herri Kanta Jaialdian aukera ederra dugu gure partaidetzarekin horrelako ekimenak sustatzeko. Herriko hainbat abesbatza agertuko zaizkigu aurtan ere euskal kantu tradizio-nalak gogora ekarri eta goza ditzagun.

Aurtengoan aipamen berezia egin nahi diogu jaialdi horretako partaide zintzoa den Xarmanta Abesbatzari eta horren abesti gehienak idatzi dituen Lurdes Zubeldiari, abesti horiek jasotzen dituen diskoa kaleratu berria dute, eta Lurdesek idatzitako hainbat istorio, pasadizo, kantu eta kontu agertzen diren liburua ere egun gutxi barru eskuartearen izango dugu guztion gozamenerako.

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

zifcomunicación@terra.es

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Tel.: 943 63 81 28

Maketazioa:

Usoa Ramírez Melón

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK MAIATZEAN ETA EKAINEAN

1- ERAUSKIN San Pedro, 22	943 641018
7- ERAUSKIN San Pedro, 22	943 641018
14- MAYI MARTINEZ Alonso	943 642191
21- IRAOLA San Pedro, 5	943 641027
28- FIZ Sokoan	943 644316
4- ALMAJANO Mendelu, 26	943 640068
11- ALAMEDA Harresilanda, 9	943 645798

TXANDAKO OKINDEGIAK MAIATZEAN ETA EKAINEAN

1- ARRATIBEL Mendelu auzoa	943 641975
7-GARMENDIA Portuan	943 641136
14 MARTINEZ Kale Nagusia, 17	943 641212
21- ARRATIBEL Mendelu auzoa	943 641975
28-GARMENDIA Portuan	943 641136
4- MARTINEZ Kale Nagusia, 17	943 641212
11-ARRATIBEL Mendelu auzoa	943 641975

2, 7 milioi Jostaldi frontoi berrikuntzarako

Udalbatzak Jostaldi frontoia berritzeko 2, 7 milio euroko inbertsioa jarriko du. Erabaki honetan udala osatzen duten partiduen babesa izan zuen (PNV, EA, PSE-EE, IU-EB eta PP), Branka izan ezik, hau abstenitu egin baitzen.

Diru honekin estalkia berriztatu, ezker pareta tratatu eta margotu egingo da. Bestalde, lurtean aldaketa bat ere egingo da. Era berean, hormigoi plaka bat jarriko da, lurraren egoera hobetzeko. Egun lurzoruak itxura irregularra du denboraren eraginez, asko okertu baita. Instalakuntza elektrikoa, iturgintza eta sutearen aurkako sistemetan ere eragina izango dute burutuko diren aldaketek. Harmailak ere aldatuko dira. Orain daudenak ez dira indarrean dagoen arautegian onartzen.

Aldaketa guztiak eraikuntzaren barrukaldean egingo dira, zeren kanpo egitura ez da batere aldatuko.

Obrak urte honen amaieran hasi eta 2007 urterarte luzatuko dira. Hurrengo urteko Jai Nagusietako partidurako bukatuta egotea nahi da.

Borja Jauregi alkateak esan zuenaren arabera, Jostaldi frontoia botatzeak eta beste berri bat eraikitzeak 1, 2 milio euroko kostua izango luke, baina jokalekua ez litzateke izango 56 metro luzerakoa, 36 metrokoa baizik, pilota jolas-teko gomendatzen duten neurriaren arabera. Beste frontoi bat, neurri berberarekin, egitea garestiago izango litzateke.



Jostaldi frontoiaren irudi bat

Maixuen eskutik kitarra eta gastronomiaren hiriburu bilakatu da Hondarribia



Musika Jaialdia urteko kultur egitarauan uztartu da

Munduko harijolerik hoberenak entzun dira Hondarribia, Irun, Hendaia, Bera eta Donostian ospatu berri den IV. Nazioarteko Gitarra Jaialdiko kontzertuetan. Ramon Rotetaren sukaldelanak, Musika et Vinum elkartearen ardoak, musikarien doinu zein ikastaroak eta Hondarribiko arrantzaleek bat eginik, hiria kultur mailak gora egin du azken asteotan.

Jaialdiaren antolatzaileak, 'Musica et Vinum' elkarte, Hondarribiko Udala eta Ramon Roteta sukaldaria izan dira, musika eta gastronomia uztartzeko helburuarekin. Jaialdiaren osagarrien artean, kontzertuak, hitzaldiak, ikastaroak eta primerako sukaldaritza platerak aurki daitezke. Urtero bezala, nazioarteko ekitaldi honek, mundu mailako musikari onenetarikoak entzuteko parada eskeini du. Hala ere, Hondarribiako Roteta Jatetxea ekitaldien erdigune nagusia izanik ere, Irun, Hendaia, Bera edota Donostian eskenatoki berriak agertu dira aurtengo edizioan.

Ramon Rotetak adierazi zuenez, "honekin musika eta gastronomiaren besta hau zabaltzea lortu nahi zen, eta helburua bete dugula uste dugu". Ildo honetatik, aurtengo edizioa aurrekoak baino luzeagoa izan da. Halaber, Hondarribiarekin senidetua dagoen Peñiscola herri valentziarrean abiatu zen, Aste Santuarekin batera, apirilaren 12an.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Aste Santuko lehiaketako argazkiak entregatzeko epea maiatzaren 30 arte da



Aste Santuko irudi tipikoetako bat

Hondarribiko Udaleko Turismo Sailatik jakinarazten da Aste Santuko VI. Argazki lehiaketan parte hartu nahi duenak bere irudiak eman ditzakeela maiatzaren 29 eta 30 ean Udal liburutegian.

Partaideek argazkiak koloretan edo zuri-beltzean aurkeztu ditzakete. Era berean, bakoitzak gehienez hiru irudiarekin aurkeztu ahal izango da. Neurria libre da, baina 30 x 40 zentrimetroko kartulinar jarrita izan behar dira.

Lehiaketara aurkeztuko diren argazkiak titulo batekin joan behar dira atzekaldean jarrita eta kartazal baten barruan egilearen izen abizenak, helbidea, telefonoa eta N.A.N.ren fotokopia. Kartazal itxiaren kanpokoaldean aurkeztu diren lanaren edo lanen izen berdinak ipinita egon behar dira.

1 200 euro saritan

Udalak 1200 euro bideratu ditu sarientzako. Irabazleak 500 euro jasoko du, bigarrenak 400 eta hirugarrenak 300. Partaide bakoitzak sari bakarra har dezake.

Lehen saria irabazten duen argazkiaren jabea Udala izango da. Hurrengo urtean argazki hoberean Zuloaga Etxean erakusketa batean aurkeztuko dira.

Muliate inguruan babes ofizialeko 260 etxebizitza eraikiko dira



Muliate inguruan 400 etxebizitza egingo dira

Udalak Muliatego zonaldean 400 etxebizitza egiteko asmoa du, horietatik 260 babes ofizialeakoak izango liratekelarik. Udala osatzen duten alderdietako bozeramaileek bilkura ugari egin dituzte etxebizitzaren arazoari bultzakada bat emateko, eta akordio batera iritsi dira azkenean.

Akordio horren arabera, Alkatea Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin bilduko da. Bertan, Eusko Jaurlaritza alokairu sozialaz arduratzea eskatuko dio, eta bien bitartean, babes ofizialeko etxebizitzaren promozioa eta salmenta Udalaren esku joango da. Akordio honek EAJ-EA, PSOE, PP eta EB-Berdeak taldeen oneritzia jaso zuen, Branka abstenitu egin zen.

Muliatego aurreproiektua jadanik Gipuzkoako Buletinera bidali da eta urrirako onartua egotea espero da. Proiektu honek aurrera jarraituko du alokairu sozialen kontuarekin gertatzen dena gertatu. Udalak Muliatego-ri lehentasuna emango dio, eta Damarri Presako etxebizitzaren promozioa gerorako utziko du, onartzeke dagoen Lur Zoruaren Lege berriak arautu beharko du eta.

Horrez gain, eta etxebizitzekin lotuta, Udalak gaur egun Soroetan dagoen futbol zelaian alokairu sozialeko etxebizitzak egitea aurreikusten du. Promozioa Eusko Jaurlaritzak aurrera eramatea nahiko luke alkateak, eta hala eskatuko dio Etxebizitza Sailari mantenduko duten bileran.

Haur parke berri bat zabaldu da Sokoan

Apirilaren 7an ireki zen Sokoako parke berria. Aurten irekitzen den bigarrena da. Bertan dauden jokoak, Hondartza ondoko parkekoen antzekoak, KOMPAN enpresarenak dira.

Oso kalitate ona eta diseinu modernoa duten joko horiek, indarrean dauden segurtasun neurri zorrotzenak betetzeaz gainera, jolaserako balio handikoak dira. Joko horien inguruan berdegunea dago, eta belarra erein berria delako hesituta dago.

Aurrekontu osoa 380.000 eurokoa da, eta lbargoien erakuntza enpresa arduratu da lanetaz. Proiektuaren egilea berriz Alvaro Perez arkitektoa izan da.



Parke berriak arrakasta handia izan du

TAO zerbitzua portuan hasi da



TAO zerbitzua Portuan uda igaro arte egongo da

Apirilaren 3tik aurrera eta abuztuaren 31 arte, Portuko TAO zonaldea indarrean jarri da. Baldintza desberdinak daude inguru osoan aparkaleku bat baino gehiago daudelako. Honako hauek dira bertan erroldatutakoek eskura ditzazketen txartelak:

20 zk. duen Txartela: Txartel bakoitzeko 30 euro ordainduz, Portuan TAO dohainik izateko eskubidea duzu.

23 zk. duen Txartela: Txartel bakoitzeko 50 euro ordainduz, Portuan, Ramon Iribarren, Foru Kalea, Hondartzako Aparkalekuan TAO dohainik eta Bentako aparkalekuan egoiliarren tarifa izateko eskubidea.

33 zk. duen Txartela: Txartel bakoitzeko 20 euro ordainduz, Ramon Iribarren, Foru Kalea, Hondartzako Aparkalekuan TAO dohainik eta Bentako aparkalekuan egoiliarren tarifa izateko eskubidea duzu.

Helbide bakoitzeko bi txartel eskura daitezke gehiezez.

KARNET ERAKO ARGAZKIRIK BEHAR?
NAN, GIDA BAIMENA, EHIZA, IKASTETXE...
EDOTA LAGUNEI OPARITZEKO
20 ARGAZKI KARNET ERAKOAK
BAKARRIK
3,58.-euro
foto FRANAN
 Zuloaga,4
 Anbulategiaren parean
 HONDARRIBIA

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 5 • 943 64 27 77

Erdi Aroko Hirien Sareak harresien inguruan turismo kulturala erakarriko du Hondarribira

Hondarribiko Udalak sustatu eta ekainean sortuko den Erdi Aroko Hirien Sareak, dagoeneko espainiar Estatu mailako beste bederatzikide ditu: Hondarribia, Biasteri, Lizarra, Covarrubia (Burgos), Sigüenza (Guadalajara), Consuegra (Toledo), Coria (Caceres), Olivenza (Badajoz), Almazan (Soria) eta Sos del Rey Catolico.

Mendeetako historia gordetzen duten karrika eta eraikinek, harresi eta galeriek jakinminez beteriko bisitariak erakarriko dituzte. Hala ere, azken urteotan, herri arrantzaleak jasan izan duen turismoaren etorrerak, bere altxor historikoak bigarren mailako dibertimentua izan dira kanpotarrentzat. Izan ere, hondartza, eguzkia eta jaigiroak, Mediterraneo itsasertzean beste baliabiderik gabe aurrera egiten duten herri turistikoen bidean jarri dute Hondarribia. Historia barra-barra edukita, Udalak balore hauek aprobetxatu nahi ditu, eta era guztietako turistak jaso nahi ditu, ez bakarrik eguzkia hartzera etortzen direnak, eta baita gure hiriak eskaintzen dituen altxor lekuak bisitatuko dituen haiek hain zuzen.

Erdi Aroko Hirien Sarea

Kultura eta ondasun historikoak babesteko ahalegin hauek, herriak duen turismoa moldatu dezakete ere. Izan ere, Txingudi bailarak 2006ko urtarrilan Madrilgo FITUR nazioarteko turismo azokan izan zuen ordezkaritza, alkateordea



Erdi Aroko harresiaren zati bat Murrua kalean ikus dezakegu

den Aitor Kerejeta eta Xabier Gezala kultur zinegotziak osatu zuten. Horrela, bertan eskeinitako baliabideen artean, hondartza, mendia edota gastronomia bezalako esparruez gain, Hondarribiak duen ondasun historikoa ere nabarmendu zuten. Garai hartan, Erdi Aroko Hirien Sarearen sorrera abian zen. Eta gaur egun, errealitate bilakatzeko atarian dago.

Zentzu honetan, hirien elkarte hau osatzeko protokoloa apirilaren 11an

onartu zen, Hondarribian izandako Udal Batzarrean. Proiektua aldez aurretik barne batzarretik pasa ondoren, Xabier Gezalak, sare horretan sartu eta "etekin kulturalak zein turistikoak" lortzeko helburua dutela aitortu zuen aste-kari honetan.

Hiri bakoitzak 3.000 euro ordaindu behar izan ditu aldez aurretik.

Xabier Gezala zinegotziaren hitzetan, "izaera hontako elkarreei Europar Batzordeko diru-laguntzak eskuratzea errazagoa egiten zaie. Beraz, hiri bakoitzak bere ondasunak babesteko laguntzak eskuratzerako orduan, bakarka aurkeztutako proiektuak aurkitzen zituen oztopoak ekidin ahal izango ditu Hondarribiak".



**BAR
ONDARRIBI**

AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA




San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

Ibilgailu Klasikoak eta Bioterra Ficoban izan dira

Ficoba Gipuzkoako Erakustazokak jarduera-egutegia zabaltzen jarraitzen du. Oraingo honetan, Ibilgailu Klasikoaren Nazioarteko XII. Erakusketa egin du. Maiatzaren 13 eta 14an izan zen ekitaldia, eta 12.000 m² hartu zituen auto eta moto klasikoak soilik erakusteko.

Erakusketa Ficobara lekualdatu da, azken edizioak Tolosan egin ondoren. Ibilgailu Klasikoaren Elkartek antolatzen du ekitaldia, eta, bertan, nazioko eta atzerriko profesional nagusiak bildu ditu, bisitariek eskura izan dezaten automobilgintzan historia egin zuten marka handietako autoen eta motoen erakusketa. Baina, autoez eta motoez gain, beste hainbat eskaintza ere aurkitu ahal izan zituen bisitariak, hala nola, ordezkio piezak, liburu espezializatuak, garaiko eta gaur egungo jantziak, osagarriak, antzinako makineria edo artea. Azken batean, auto eta moto klasikoaren unibertsoaren ikuspegi zabal bat.

Bestalde, maiatzaren bukaeran, 26tik 28ra, hirugarren aldiz Bioterra azoka ospatuko da. Mugaz gaindikoa, erabat ekologikoa, erritmo onean ari da Erakustaldia merkaturatzen, Ficobatik esan digutenez; Baieztatuta dago permakulturaren inguruko mintegia egingo dela Richard Wade estatubatuarraren eskutik. Han, diseinu-sistema hori jorratuko da.



Nazioarteko Ibilgailuen
Erakusketaren kartela

Dendarien %41ak erantzun positiboa eman du Lesgay- zale 2006 kanpainan

Martxoan zehar GEHITU elkarteak Hondarribian egindako Lesgay-zale 2006 kanpainan %41ak erantzun positiboa eman du.

Kanpainaren helburua herritarrengan homosexualitateari buruzko gero eta gogoeta eta sentsibilizazio handiagoak sustatzea zen betebaharra atxikitze-ko asmoa grafiko-ki azaltzea kanpainaren logotipoa agerian jarritz.



Kanpainaren posterra

Galdeketa egin zaien 301 ajenteetatik 123 (40,9%) erantzun positiboa eman dute, 102 (33,9%) negatiboa eta 76 (25,2%) zalantzan zeuden.

Irunen egindako galdeketa gertatu zen bezala, dendariei iritzia ematea kostatzen zaie. Kanpaina onartzen dute baina ez dute beharrezkotzat jotzen. Batzuetan kaltegarritzat jotzen dute helburua lortzeko: hau da, normalizazioa.

Informazio gehiagorako Udalarekin kontaktua jarri zaitzekete edo eta GEHITU Elkartearekin zuzenean helbide eta telefono hauetan 902 200096 edo 943 468516 www.gehitu.net edo info@gehitu.net.

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel.943 64 27 38

Foto Sistema

ADVANCED PHOTO SYSTEM

ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Itsasargi 3
Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

Udal artxibategia elkarte berri batean sartu da

** Euskal Autonomia Erkidegoko Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Elkarteko kide da*

Udal Artxibo Zerbitzuak eskaturik, Udalak ALDEE elkartearekin, (Euskal Autonomia Erkidegoko Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Elkartearekin) bazkide instituzional gisa sartzeko akordioa hartu du.

Hori dela eta, ALDEE-En parte hartzeak zenbait abantaila dakarzki:

-Administrazio Elektronikoaari buruzko azken argitalpen, araudi, gutun eta agiri berri izatea (Artxibistika, dokumentazioa, eta bibliotekonomia, beste gai interesgarri askoren artean).

-Elkarte honek berak antolatzen dituen ikastaro, kongresu, hitzaldi eta abarretan parte hartzea, beharpen handiak, eta beste erakunde batzuek antolatzen dituzten ikastaro, kongresu, hitzaldi eta abarren berri izanik (Maiatzetan bertan Udaleko hiru teknikariek Elkarte honek antolaturiko "Dokumentazio elektronikoa e-Administrazioan" ikastaroan hartuko dute parte).



Artxibategia Zuloaga Etxean dago

San Isidro eguna ospatu dute baserritarrek



San Isidro eguna

Maiatzaren 15ean San Isidro eguna ospatu zuten baserritar eta nekazariek Guadalupe inguruan. Egun osoan elikadura azoka martxan izan zen, baina hala ere jardunaldi berezi hau goizeko 10:45etan hasi zen Guadalupeko elizatik atera zen prozesioarekin. Prozesioa amaitutakoan, mezaren ordua iritsi zen.

Ondoren, bertsolariak eta herri bazkaria izan zituzten Alkartasuna Elkartearekin baserritarrek. Arratsaldeko bertsolarien saioarekin eta herri jokoekin (aizkolari zein harrijasotzaileak bertan izan ziren) San Isidro egunari amaiera eman zitzaion.



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEAK

San Pedro, 6
Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



VITALICIO
ASEGUROAK Rgs. Zbk. 3625

San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Bidasoa Turismo Huelvan izan da

** Arduradun eta kazetariak osatu dute bidasoar ordezkaritza*

Bidasoa Turismo egitasmo berezi bat abian jarri du Huelvako diputazioarekin batera bi lurraldeen arteko erlazio turistikoa sortu eta sendotu asmoz. Sevilla eta Malagako aireportuetara dihoazen hegaldia zuzen berriekin lotuta dagoen ekimena da.

Maiatzaren hasieran Bidasoa Turismo zenbait ordezkari Huelvan izan dira. Hortaz gain, zenbait komunikabide bertan izan dira bertako turismo arduradunek gonbidatuta. Azkenik, Bidasoa Turismo gauza bera egin du Huelvako agintari eta kazetariekin gonbidapena bueltatuz.

Egitasmo berri hau zuzenki lotuta dago Hondarribiko aireportutik Sevilla eta Malagara irteten diren hegaldia berriekin. Guillermo Echenique Bidasoa Bizirik-eko kontseilariak esan zuenez, "denborarekin ikusiko dugu nolako emaitzak ematen dituen; onak badira gainontzeko probintziekin saia gintezke".



Turismo erantzuleak pozik daude ekimen berriarekin

Kabul taldeak bere lehen diskoa atera du

Hondarribiko Kabul taldeak bere lehen diskoa argitaratu du. Psilocybinaren eskutik, Psilocybe elkarteak musika taldeko elkarteak osatu duten zigilua, egin dute hondarribiar gazteek bere lehen lana.

Lan berri honek lau gai eta bideoklip bat dauka. Taldea hiru-kote batek osatzen du: Arkaitz Amunarriz (gitarra eta ahots nagusia), Jon Aristizabal (baxua) eta Eñaut Balentziaga (bateria eta ahotsa). Proiektu hau ateratzeko zenbait pertsonak lagundu dute: Aitor Renteria (Zea Mays), Danel Emazabel Pantera (Lif), Aritz Lazkano (Izaera), Igor Teresa, Tr (Lif eta Kalite), Ángel Etxebeste (Lif) eta Mikel Ugarte (Izaera).

Egiten duen estiloari buruz, Balentziagak dioenaren arabera "ez daukagu zehazki estilo bat eta horregatik metal, post hardcore, emorocketik edaten dugu. Dut, Lisabö eta Snapcase bezalako taldeak gure influentziaren erreflexua dira".

Orain dela bost urte sortu zen taldea eta bere hasieran taldea bost kide osatzen bazuten ere, urteekin aldaketak egon dira eta orain hirukote bat da.

Grabaketa eta masterizazioaren arduraduna Mikel Ugarte (Izaera) izan da.



Kabul taldeko kideak

**inmobiliaria
gestoría
administración de fincas**

pérez alkain

Matxin de Artzu, 14
20280 Hondarribia
Tel. 943-64-21.57
Fax: 943-64-54-16
e-mail: gespeat@euskatnet.net

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557

Antxeta Irratiaren egoitza kaltetua izan da

** Ur isuri batek estudioa ureztatu egin du*

Antxeta Irratia, Bidasaldeko euskal irratia, Hendaia-ko hiri erdian, De Gaulle General Bulebarrean duen egoitza erabat kaltetua suertatu zen apirilaren erdialdera. Gaietako solairuan hutsik zegoen etxebizitzan ur-berogailu bat hormatik erori eta uraz hornitzen zuen hoderiatik ur guztia atera eta behean dagoen Antxeta Irratiako lokalera isuri zen.

Ezbeharraren berri izan zuen hortik gutxira lokalaren jabeak, eta erreakzio azkar bati esker uraren horniketa moztu zuen. Aitzitik ura ordu batez atera zen eta estudioetan sartu zen uholde bat sortuz. Urak, goitik erori zenez, estudioa inguratzen duen aislantea kaltetu du eta egoitzan obra egitea aurreikusten da.

Antxeta Irratiatik dei zabal bat luzatzen diegu Bidasoa-Txingudi eskualdean dauden, elkarte, eragile eta bereziki euskalgintzako eragileei, ahal duten neurrian

une zail haue-
tan egitasmo
hauek lagundu
eta babes dit-
zaten, bereziki
gogoratzen diegu
aurreko urtean ospatu
zen Antxeta
Irratiaren alde-
ko jaietan, "Bida-
soan Euska-
raz" aurten ere
ospatu egingo
dela maiatza-
ren 19tik
21era.



Antxeta Irratiko lokala horrela geratu da

Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko anaitasun ekintzak



Jardunaldiak Udaletxean aurkeztu ziren

Hondarribiko Udalak "Euskokultur Fundazioa" eta "Foro Irun XXI" elkarteekin batera berriro ere antolatuko du "Euskal Herritarren Nafarroa Osoa" deritzan ekitaldi sorta. Ekimen hau, nafar eta gipuzkoarren arteko adiskide-egun gisa hasi zena, urtetik urtera gero eta atxikimendu gehiago jaso eta jarduerak zabaltzen ari da.

Maiatzaren 18 eta 25ean hitzaldi bana eman ziren. Lehen Antxon Lafontek eskainia, "Euskal Herriko nortasuna eta ekonomia"ri buruz izan zen ostegunean. Bigarrena Markel Olanok, EBBko kideak emango du, "Euskal Herria: zenbat gara 0, 1, 2, 3, ...?" izenburupean. Hitzaldi hau maiatzaren 25ean izango da Udaletxeko Areto Nagusian.

Azkenik, jardunaldi hauetako ekitaldi nagusia maiatzaren 28an izango da, igandean. Egun horretan 12,30etan ibilaldi bat egingo da Hondarribiko Itsasargitik Antso III Handiaren Talaia arte; bertan Nabartenea Abesbatzak parte hartuko du; Xabier Ezeizabarrenak aldarria irakurriko du eta "Meakako Adiskideak" taldeak aureskua dantzatuko du. Geroxeago ekitaldiari bukaera emateko Nabartenea abesbatzak gorteen ereserkia abestuko du.

Egun horretan betan, 14,00etan herri-bazkari egingo da Justiz baserrian (Txartelak Irungo Ale Nagusiko 11 zk. duen Haizea tabernan izango dira salgai maiatzaren 24 arte, Tfn. 943 638563).

EXPERT GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA

HONDARRIBIKO GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BULDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAI-
RUA ETA GORDELEKUA...

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN"!!!

Hondarribia Arraun Elkartea • Tel. 943 64 01 61 • 20280 HONDARRIBIA

JAITZUBIAKO HARRI - ZULATZAILE TALDEA



Iaz hasi ziren kirol gogor honetan, baina euren eskuei begiratua, inork gutxik esango luke hasiberriak direnik. 25-27 urte bitarteko bost gazte dira eta Joxerra Aiaren gidaritzapean, Gipuzkoan dagoen harri-zulatzailer talde bakarra osatzen dute Jaitzubiako mutil hauek. Tradizioz Bizkaian errotuta dagoen kirola izanagatik, harri-zulatzailer Euskal Herriko txapelduna Aritz Izuzkiza hondarribiarra da, eta hona jarraian Aritzek eta bere taldekideek harri-zulaketaren inguruan kontatutakoak.

Noiz eta nolatan hasi zineten kirol bitxi honetan?

Orain dela urte eta erdi hasi ginen harriak zulatzen, lehenengo erakustaldia, gainera, Guadalupen egin genuen. Taldea osatzen dugunak Santiagon arraunnean ibiliak gara eta urteroko bazkarian bilduta geundela, Joxerra Aiak Gipuzkoan harri-zulatzailer talde bat sortu nahi zuela aipatu eta animatu egin ginen. Halaxe, Joseba Berridi, Urko Andueza eta ni neu gabiltza geroztik harriarekin borrokan; Igor Ugartek beste taldekoen epaile lana egiten du eta Xabi Lizarribar ura botatzeaz arduratzen da (baita ordezkotza, hala behar denetan). Entrenatzaile gisa, berriz, Joxerra bera dabil.

Zer prestaketa behar da harri-zulatzailer izateko? Indarra, teknika, egoera fisikoa... zer da garrantzitsuenak?

Harri-zulaketan eskuek asko sufritzen dute, horregatik pilotarien antzeko takoak erabiltzen ditugu. Horretaz gain, prestaketa fisikoa ere oso gogorra da; astean bost egunetan aritzen gara entrenatzen eta saio bakoitzean bi ordu egiten ditugu. Bi egunetan harria zulatzen aritzen gara Jaitzubiako harri-lubeta batean eta beste hiru egunetan kiroldegiko gimnasioan bizikleta, muskulazioa... egiten dugu. Harria zulatzeko dena da garrantzitsua, baina nire ustez gehien behar dena indarra da. Zuloa jotzen asmatuz gero, hortik aurrerakoa indarrak egiten du, nahiz eta jendeak garrantzitsuen teknika dela pentsatu.

Nola moldatzen zarete materiala lortu eta eramateko?

Erabiltzen ditugun burdinazko barrak Alemaniatik ekarriak dira eta harria, berriz, Antzuzelaitik ekartzen dugu, Beratik. Erabiltzen dugun materiala kareharria izaten da eta batetik bestera eramateko gu geu moldatzen gara ahal dugun moduan.

Laguntzarik jasotzen al duzue? Kirol merkea al da zuena?

Ez dugu laguntzarik jasotzen; babesle batzuk baditugu, baina ia dena guk ordaintzen dugu eta harri-zulatzailer ez da uste bezain kirol merkea. Barrak eta harriak erostea, barrak Urnietara eraman eta bertan tenplatzea... dena da gastua. Zailena kirol bati hasiera ematea da; harriak lortzea, jendearekin kontaktua egitea... lortuta, handik aurrerakoa errazagoa da erakustaldien bidez.

Nolakoa da harri-zulatzailer denboraldia? Non barrena ibiltzen zarete?

Maiatzean hasi eta irailean bukatuko dugu liga; Bizkaian zehar ibiliko gara, hala nola, Trapagaranen, Gallartan, Txorierrin...

Iaz harri-zulatzailer banakako lehia Euskal Herriko txapeldun bihurtu zinen...

Bai, halaxe da. Deban izan zen sailkapen orokorrean Joseba bigarren eta ni laugarren geratu ginen; finala Galdakos...



Ainara Elizondo

damesen jokatu zen; hamar harri-zulatzailerik ginen, gehienak bizkaitarrak, eta gipuzkoarrak bi besterik ez, Joseba eta ni. Finalean 20 minutu genituen; Josebak 4,6 zuloko marka egin zuen eta nik 6koa. Aurten Josebak, Urkok eta hirurok aurkezteko asmoa dugu.

Joan den apirilaren 2an eta ETBren esku-tik, Trapagaranen aurkako 6000 euroko apustua egin zenuten Azpeitiko zezen-plazan.

Bai; gauza da banakako finalean sartzen baldin baginen Trapagarangoekin apustua egitea proposatu zuela Joxerrak, eta halaxe egin genuen. Besteek adina eman genuen Azpeitian, baina materialen artean alde handia zegoen. Guk barra osoak material berekoak genituen, baina haiek puntak beste material sendoago batekoak. Orain arte egin ditugun erakustaldietan Trapagarangoekin parekatuta ibili gara, baina azken erakustaldietan guk ezagutzen ez dugun beste material bat erabiltzen hasi dira eta ordu erdian 4 zuloko hobetzea egin dute. Halaxe, Azpeitian apustua ordu betekoa izanik, alde handia atera ziguten eta guk 25 zulo egin genituen bitartean, beraiek 34 egin zituzten. Orain

arteko txapelketa guztiak material berarekin egin izan ditugu,



Jaizubiako zulatzaileak Bizkaian ospatutako txapelketa batean jo eta su

baina apustuan bakoitza berearekin aritu zen eta ezin izan genien aurrea hartu. Hala ere, eskarmentua hartu eta orain material berri batekin probatzen hasi gara.

Zein dira zuen asmoak aurrea begira?

Txingudi Egunean harri-zulatzailerik ligako txapelketa egin behar genuen, baina Txingudi Eguna aldatu eta azkenean egun horretan erakustaldi bat egingo dugu.

Gure asmoa txapelketa hori Hondarribiko jaietan antolatzeari izango litzateke, baina oraindik ez gara udaletxearekin harremanetan jarri.

Horretaz gain, denboraldiari begira gure erronka nagusia banakako txapela berriz ere Jaizubia aldera ekartzea da eta ligan lehenengo postuan ez bada, lehenengoetan, behintzat, geratzea.

BAR - RESTAURANTE LARRA

C/ DAMARRI, 4
20280 HONDARRIBIA
TEL.: 943 64 27 04



Pintxos, Bocadillos, Platos Combinados,
Menús del Día, Menús a la Carta.



GESTIÓN:

CONTABLE,
FISCAL,
LABORAL
* SEGUROS

GESTIOA:

* KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA
ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
* ASEGUROAK

Ezkutatu ziren ohiturak



Martin Iturbe

Nik neronek ez dakit nundikakoa duen San Markos-ek gure artean hainbesteko erakar-indarra.

Guk ezagutu izan dugunez, aspaldikoa zen, bai, egun horretan “errogatibak” egiteko ohitura.

Gehien bat, euria eskatzeko egiten zen otoitz-mota zen bera.

Ohiturak ohitura, kontu xelebreak ere sortu izan dira horrelakoen inguruan.

Nik neuk ikusia: urtegarai beroan, legortean, landare guztiak erretzear jartzen zirenean, “errogatibak” egiteko eskatzen zitzaion apaizari. Horretarako, etxez etxe, dirua bildu ohi zen eskupeko-gisa.

Gure auzotarren arteko batek hala esan zion diru-biltzaileari: “Zuen soroan euria egiten badu, nerean ere egingo du”. Eskuzimurra izaki !!.

Garai haietan ezagutu genuen beste beste ohitura, honoko hau zen: “Konjuroak egitea”. Jakiña den gauza da, nekazariak eguraldiaren menpe bizi behar izaten duela, eta urte guztiko lana orduerdi batean xeatua gera litekeela.

Harrite edo harrijasari zaio beldurra bero kiskalgarria nagusi denean. Eta egoera horretan, zeruari ere eskabidea egiteko ohitura sortu zen. Ekaitza eta harri-erauntsiak uxatzeko eskatzen den “konjuroa” egiterakoan.

Maiatzeko Santakruzetatik irailleko Santakruzetara, apaizak, eguner egunero, eliz-atarira irtenda, konjuro hori egiten zuen.

Dena den, gure kontrolpetik kanpo diren beldurgarritzko gauzetan, edozertaz gogoratzen gara, baita zeruaz ere.

Harrijasari buruz bada gure herrian halakoxe

esaera bitxia: “Atera burumendi, pasa orendaindi, deskarga gorritimendi” (Hori gertatu eskero, nere herria, Ikaztegieta hain zuzen, libre geratzen zen, hiru mendi-mutur horien erdian, katillu batean bezala gordea bait dago.)

Baserriren batean edo bestean ohitura gorde-txen badute ere, gure artetik azkutatua dela uste dut, soroetan eta etxeko ate-leihoetan gurutzeak jartzeko ohitura.

Erramu egunean bedeinkatutako erriñozuaren egurrez gurutze txikiak egiten ziren, eta pazkogauzez bedeinkatutako kandela prizuaaren argizari-tantoz apainduta jartzen ziren gurutze hauek,, maiatzeko Santakruz egunean, hain zuzen.

Baratza, soro, belardi eta zelaiune bereixi bakoitzean jartzen ziren.

Zurezko gurutzeak oso txikiak zirenez, esola-gis makiltxo hartu eta muturrean itsasten zitzaion gurutzea.

Errespeto haundiz egiteko lana zen, nola ez !!!

Soro-ertzera hurbildu, txapela erfantzi, Aralarko San Migel goiangeruaren baseliza aldera begira jarri, eta “kredoa” errezatzen zen bitartean kokatzen zen makiltxoaren muitur zorrotza, lur bigunaren bizkarrean.

Egintza horrek berekin zeraman eskabidea: soroetatik eta etxeetatik gaitz guztiak urrun zitezela.

Guzti hau farregarri gerta liteke gaurko gizarte “kiulturaz aurreratuaerentzat”.

Ikusteko litzateke, ordea, gaur bertan zenbat Jainko txiki farregarri adoratzeko ditugun. Errespeto haundia diet ohitura horiei. Gure izaeraren oiñarri ere bai baidira.

Saihesbidearen bigarren fasea abian da

Gipuzkoako Ahalduen Nagusia den Joxe Joan Gonzalez de Txabarri izan zen ekitaldi batekin Hondarribiko saihesbidearen bigarren faseko lehen harria ipini zen maiatzaren 8an. Hain zuzen ere, GI-3440 eta GI-33361 errepideen saihesbidearen abiapuntua da.

Hondarribiko saihesbidearen 2. fase hori egitean, gaur egun hiri barrua zeharkatzen duen ibilgailuen kopuru handi bat bereganatuko duen errepidea bukatuta geldituko da, eta horrek zalantzarik gabe, herriko gunearen egoera eta zirkulazio baldintzak asko hobetuko ditu.

Saihesbidearen bigarren fase honetako obrak Santa Engraziako biribilgunean hasten dira, Jaizkibelgo errepidearekin elkartu arte eta jadanik eraikia dagoen bidetik jarraitzen du (Labreder Kalea), Abarka jatetxearen parean dagoen errepidearekin bat egiten duelarik.

Hiru bibirbigune egingo dira inguruko bideen arteko loturak lortzeko: Muliategoa, egiten ari diren urbanizaziora sartzeko; Montañakoa, dagoeneko zati bat eraikia duena, Jaizkibelgo errepidearekin lotzeko; eta Baserritar etorbidekoa, itsasargiko errepidearekin lotzeko.

Lehen fasekoaren moduan, errepide hau ere bi lerroko galtzada izango da. Trazatua zuzena da ia-ia eta aldapa txikiak ditu. Lehen 400 metroetan, saihesbidea bide gorri baten parean doa.

Obrak joan den otsailaren 8an esleitu zitzaizkion Mariezkurrena eta Zubieder enpresek osatutako aldi baterako enpresa elkarteari, 4.680.000 €tan eta 12 hilabeteko epea ezarri zaio obrak egiteko. Beraz, errepide berria datorren udaberrian irekita egongo da.



Herri Kanta jaialdia hilaren 28an izango da

Udaleko Kultura Departamentuak XVII. Herri Kanta Jaialdia antolatu du. Maiatzaren 28an burutuko da, Gipuzkoa Plazan. Parte hartu ahal izateko, abesbatzek ondoren zehazten diren baldintzak bete beharko dituzte:

- Ahots berdinekoak edo mistoak izan litezke eta bertako kideak 16 urtez gorakoak izango dira.
- Abesbatza bakoitza gutxienez zortzi kidez osatuko da.
- Talde bakoitzeko kideen % 80 gutxienez, hondarribiarrak izango dira, Hondarribian jaioak edo bertan bizi direnak.

Talde bakoitzak, jaialdian zehar bi kanta abestuko ditu eta zuzendarien artean aukeratuko den beste herriko bat ere, zeina parte hartzen duten talde guztiek, ikusleekin batera, abestuko baitute. Bukatzeko "Agur Jaunak" kantatuko da. Era berean herri bazkariaren ondorengo jaialdian beste bi kanta kantatuko ditu. Kanta hauek ez dute derrigorrez jaialdian kantatu gabeak izan beharrik. Jarraian koruek herrian zehar ibili beharko dute kantuz.



Udalak eta Arraun Elkarteak euskararen



Udalak eta Arraun Elkarteak euskararen erabilera sendotzeko akordio bat sinatu berri dute. Hala egin zuten apirilaren 24an Areto Nagusian Aitor Kerejeta Lehen Alkateordeak eta Joxemi Elduayen Arraun Elkartearen presidentea, Kattalin Noblia Euskara Zinegotzia bertan zelarik.

Hitzarmen berri honi esker, Arraun Elkarteak herritarrei zuzendutako lehen hitza euskaraz izango dela bermatzen du. Elduayen presidentearen hitzetan, "elkartean denbora daramagu euskararen alde lanean. Arraunean garaipenak lortzeko gaude gu, baina garaile hauek hondarribiarrak eta euskaldunak badira, hainbat eta hobe".

Aitor Kerejeta Lehen Alkateordeak esan zuenez, "euskararen egoera azken urteotan hobetu egin da, baina bide honetan segitu behar da. Azken datu bilketaren arabera, euskaraz jende askok badaki, baina erabilera urriagoa da. Horren inguruan dator hitzarmen hau. Udalak asmo

onak ditu, Arraun Elkarteak baita, eta ildo horretatik lan egiten badugu, emaitzak lortuko direla-koan gaude".

Hitzarmenaren izpiritua

Kattalin Noblia Euskara Zinegotziak adierazi zuenez, "hitzarmen honen izpiritua euskarari lehentasuna ematea da, ekintza zein publizitate arloan. Hondarribia Arraun Elkartearen klub euskalduna da, eta bide horretan segitu behar dugu. Udaletik hartu ditugun konpromisoen artean, dokumentuen itzulpenetan Euskara Zerbitzuaren laguntza eskaintzea, Aholkularitza Zerbitzua eskaintzea... daude".

Hortaz gain, Udalak Elkartearentzat baliagarri gerta daitekeen informazioa eskura jarriko du, hizkuntza materialak helaraziko dizkio eta hizkuntza trebakuntza zerbitzua eskainiko dio Elkarteari, kudeatzaile edo monitoreak ahal den neurrian trebatu asmoz.

a sustatzeko hitzarmena sinatu dute



Hondarribia Arraun Elkartean euskara sustatzeko kanpaina berri hau guztiei zuzenduta dago. Kirolari gazte zein heldu, monitore eta nola ez, zuzendariei ere. Nahiz eta kirol lengoaiari gaztelaniara joatea errezena den, Udal Euskara Batzordetik eta Arraun Elkartetik euskararen aldeko apostu sendo bat egin da. Orain, denek egin beharreko esfortzu bat ezinbestekoa da aurrera egiteko.



Hiru orrialde dituen dokumentu horretan dauden Arraun Elkarteen konpromisu batzuk :

- Euskarari lehentasuna ematea komunikazio eta administrazio arloan (elkarteko aldizkaria, prentsa oharrak, publizitatea, imprimakiak, gutunak... etabar)
 - Kirol ekitaldietan euskararen presentzia bermatzea (deialdiak, megafonia, musika,...)
 - Haur eta gazteekin elkartek dituen harremanetan ahoz zein idatziz euskara erabiltzeko neurriak hartzea.
- Beste aldetik Udalak eskaintzen du hizkuntza aholkularitza eta itzulpenetan laguntza, hizkuntza trebakuntza zerbitzua, eta material teknikoa euskaraz.



Uda abenturan parte hartzeko deialdia zabalik da

Adina: Hondarribian bizi eta 1992, 1993 eta 1994 urteetan jaioetakoak (12, 13 eta 14 urtekoak)

Hizkuntza: Uda Abentura programa euskaraz egingo da. Parte-hartzaileek bere taldekide zein monitoreekin euskaraz jarduteko gai izan behar dute

Txanda eta parte-hartzaileen kopurua:
1.- Uztailaren 3tik 14ra / 36 neska-mutil
2.- Uztailaren 17tik 28ra / 36 neska-mutil

Ordutegia: Goiz eta arratsalde

Kuota: 110,00 €

Aurretiko izen-emateak:

Maiatzaren 8tik 19ra.

Aurretiko izen-ematea egiterakoan uda abenturan parte hartu nahi duen gaztearen datu hauek emango dira: izena, bi abizenak, jaiozte data, helbide osoa, telefonoa eta ikastetxea.

Parte-hartzaileen bizitokia, Udal Erroldan egiaztatuko da.

Tokia: Gazte Informazio Bulegoa

San Pedro kalea, 15 - 943 644752



Ordutegia:

Astelehena - ostirala: 16:30-20:00

Larunbata: 10:00-13:00

Zozketa: maiatzaren 24an izango da INFORMAZIOA

Plazak behin betikoak direnean, joateari uko egiten diotenei ez zaie ordaindutako dirua itzuliko, ziurtatutako arrazoiengatik ez bada. Hala izanez gero, idatzi baten bidez jakinarazi beharko zaio Udaleko Gazteria Departamentuari.

Saharako Haurrak hartzeko Oporrak Bakean programa aurkeztu berri da

Hondarribiko Udalak, Gizarte Zerbitzuen Departamentuaren bidez jakinarazi nahi du, "Oporrak Bakean" izeneko programa dela eta, uztailaren 8 abuztuaren 8 urtetik 12 urte bitarteko 8 neska-mutil saharar hartzeko asmoa duela.

Programa honek izaera humanitarioa du eta zenbait arrazoiengatik gizarte egoera txarrean dauden umeei edo osasun egoera berezian daudenei zuzenduta dago.

Udako hilabete hauetan beren etxeetan hartuko dituzten familiekin oporrak igarotzeko aukera eskaini nahi zaie eta familia hauek konprometitzen dira neska-mutil horiei beren etxeetan ostatua, mantenua eta babesa ematera, halaber osasun zainketaz eta errehabilitazioaz ere arduratuko dira, baldin eta garai horretan horrelakoren beharrea gertatzen badira.

Hondarribiko Udalak programa hau martxan jartzearekin, bere gain hartuko ditu neska-

mutil horien bidai-txartelen gastua eta horiekin batera Saharatik etorriko den begiralearena. Era berean aisialdiko ekintzak antolatu eta osasun azterketak eta zainketak koordinatuko ditu Osakidetzarekin, bestalde haur bakoitzari eta hori daukan familiari laguntza eskaintzeaz gainera, hauen jarraipena egingo du.

Ekimen honetan parte hartu nahi duten familie guztiek informazio zabalagoa jasoko dute Departamentu honetara, 943 111291 telefonora deituta-



Hondarribia Futbol Elkartek hobekuntza ikastaroak antolatzen ditu

** Uztailean izango da, eta bi txanda egongo dira*

Uztailean zehar Hondarribia Futbol Elkartek IV. Futbol Hobekuntza Ikastaroak antolatu ditu, 6 eta 14 urteko gazteei begira. Hamar egunetako bi txanda egongo dira, eta mutil zein neskentzat irekita dago.

Futbol jardunaldi hauetan, 1992 eta 2000. urteetan jaiotako haur eta gazteek hartuko dute parte. 1995 eta 1999 urteen bitartean jaiotako benjamin eta aurre-benjaminak kontsideratzen dira, eta Lehen maila osatuko dute. Bitartean, 1992 eta 1995. urteetan jaio direnak, alebin eta infantilak dira, eta Bigarren maila osatuko dute. Gehienez jota, maila bakoitzeko 20 jokalaria egongo dira.

Bi txanda egongo dira uztailean. Lehena 3tik 14era izango da eta bigarrena 17tik 28ra. Goizeko 10etatik 12tara, jardunaldiak astelehenetik ostiralera izango dira.

Parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da ekainaren 24 aurretik 70 euro ordaintzea ondorengo kontu zenbaki honetan: 2101 0039 19 0000208744 (Kutxa).



Ikastaroa uztailean izango da eta partehartzaile kopuru mugatua dauka



Hondarribia Futbol Elkartek zorioneko denboraldia burutu du. Kadete Ligako txapeldun bilakatu da eta Infantil Txikia Kopakoa. Zorionak Elkarteko kide guztiei!



Beste urte betez Bidasoako Txirrindulari Itzulia gure inguruetatik igaro da. Benjamin Lana izan da garailea. Ia egunero pasa dira Hondarribiko kaleetatik.

eukeni optika

Zubiaundi zubaia Jaitzubian



Koldo Ortega

Egia esan, Hondarribia ez da zubi lurraldea izan ez lehen ezta orain ere. Baina gure herrian ere, atzo eta gaur, zubi ugari (izan) ditugu, eta batez ere, Jaitzubian, Amuteko zubaia beti kontuan hartuz. Ea batenbat gauza den gaia adarretatik hartu eta ikerketa on bat egiteko Hondarribiko zubiei buruz.

Udal Artxibategian zubiei buruzko informazioa nahikoa da, hala eta guztiz ere, Zubiaundiko zubiarena ez da agertzen. Baliteke, Furundarenari jarraituz, Gebaralarre zubiari dagokiona gure zubiarena izatea.

Zubiaundi zubaia Furundarena berak jasoa du bere "Hondarribiko toponimia" liburuan. Bertan hainbat lekuko aipatzen ditu datuemaile. Florentxio Arrieta, Victor Galarza, Vicente Manterola, Gaspar Olazábal eta Jose Ugarte.

Hala ere, zubi honi buruzko informazio interesgarria ikus dezakegu Julio Nuñez-ek idatzitako "Catálogo de puentes de Gipuzkoa anteriores a 1900" liburuan. 114. orrian aztertzen du egileak Hondarribiko zubaia.

XIX. mendekoa?

Artxibategian izen bereko zubi-rik ez dagoela aipatzen du, baina egituraren ezaugarriak eta neurriak kontuan hartzen ditu kronologikoki kokatu ahal

izateko. XVIII. mendearen bigarren erdian edo XIX. mende hasieran kokatzen du Julio Nuñez-ek zubaia, orduan eraiki ziren beste askoren oso antzekoa baita.

Artikulu honetan agertzen dugun irudia ez da gaur egungoa. Aipatutako liburutik hartutakoa da, egun aurkezten duena nahiko aldatua dago. Zubiaren inguruko belarrak asko haunditu dira, eta alde batetik zein bestetik ikustea zaildu egiten dute gainera. Ez litzateke batere gaizki egongo ingurua apur bat apaintzea, gutxienez XIX. mendeko zubi honetaz hobeki goza dezagun.



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

Rio Bidasoa alergia dutenen zerbitzua jartzen duen Espainiako lehen hotela da

Maiatzetik hasita Rio Bidasoa hotela Espainiako lehen bilakatu da edozein motatako alergia duten bisitarientzat gela bereziak eskainiko disuena. "Green rooms" bezala izendatua, aurretiazko protokolo bat erabiliaz eta laborategi espezializatu baten begiradapean, bezeroari eskaintzen zaion zerbitzuan pausu berri bat eman nahi du hotelak.

"Edozein motatako alergia dituzten pertsonak munduko populazio osoaren %20a osatzen dute. Zientifikoek esaten dutenez, XXI. Mende erdialderako kopuru hau %50era iritsiko da" esan du Guillermo Cardona, Irungo AIA laborategietako zuzendari teknikoak. Berau da Rio Bidasoako sistema berria kontrolatzeaz arduratuko den enpresa.

Monica Sunsundegui, Rio Bidasoa hotelero zuzendariaren hitzetan, "zerbitzu hau martxan jartzea orain artean

gure bezeroei ahal diren zerbitzu onenak eskaintzearen ildoari jarraiki doa. Gure esperientzia daukagu pertsona hauek sofritzen dutena jakin ahal izateko eta horregatik, egokia deritzogu esfortzu bat egitea alergia duten pertsona hauen alde".


Alergiak dituzten pertsona hauek gainontzeko bezeroek erabiltzen dituzten gela berdinak izango dira. Alergia desberdinak kontrolatuko dira, urtaroa beti kontuan hartuko delarik. AIA laborategiek emandako gomendioak jarraituko dira uneoro.

www.hotelriobidasoa.com web gunean zenbait datu bete beharko dituzte bezero hauek. Dau horiek bete ondoren, protokoloa jarraitu eta bezero konkretu horrentzat egokiena den gela egokituko zaio.

Alergia kontuen inguruan, esan ere Rio Bidasoa hotelak maiatzaren 26 eta 27an jardunaldi batzuk jasoko dituela.




*Monica Sunsundegui
hoteleko zuzendaria eta
Guillermo Cardona labo-
rategi espezializatuaren
erantzulea*



kai zahar
pub
almirante alonso, 12

kai zahar

truck
diskoteka
foru kalea, 13



C/ Markos Deunaren Enparantza, 7
Puntala Auzoa
20280 **HONDARRIBIA**
Tel.mobila: 609 414145

ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK LARUNBATERA 8-15
TELEFONOA: 943 64 08 88

Enbata jatetxeko Manu Thalamas-ek 2006ko Gipuzkoako pintxo txapelketako irabazi du

Manu Tahalamasek, Hondarribiko Enbata jatetxe-tabernetako sukaldariak, 2006ko Gipuzkoako pintxo txapelketa irabazi du bere "ravioli de calabacín y tosta de kokotxa de bacalao" izena jarri dion pintxoarekin. Donostiako Londres Hotelean ospatu zen lehiaketan 84 puntu lortu zituen pintxo honekin.

Puntu berberekin, Bixente Muñoz, Gran Sol-ekoa, bigarren postua lortu zuen lehiaketa berean. Bere "tosta de bacalao ahumado con foie, piquillos y melocotón" pintxoak atentzioa deitu zuen. Sailkapenerako fasean Muñozek lortutako puntuazio baxuak Thalamasi garaipena eman zion.

Manu Thalamas 2003ean Gipuzkoako txapeldunorde izan zen eta Bixente Muñoz hiru alditan saritua izan da.

Saria jaso ondoren, Hondarribiko Txantxagorri eta Itsaspe jatetxee-tako Julio Rebolleda eta Iñaki Bergésen zorionak jaso zituzten. Hauek lehen fasean kanpoan geratu ziren.

Maiatzak 21 arte lehiaketa honetako pintxo hoberenak dasta daitezke parte hartu duten jatetxe hauetan.

Julio Rebolledak, Txantxagorri jatetxekoa, "salteado de espárragos fresco con foie y nueces" eskaintzen du. Bestalde, Iñaki Bergés, Itsaspe tabernetakoa, "mil hojas de talo y anchoa de Hondarribia con su escabeche balsamico de verduritas" pintxoarekin aurkeztzen da. Bixente Muñoz, "tosta de bacalao ahumado con foie, piquillos y melocotón" delakoarekin, eta Manu Thalamas, Enbatakoa, "ravioli de calabacín y tosta de kokotxa de bacalao" gozoarekin.

Beraiekin, Ignacio tabernako Amaia Cotok txangurrozko krepea eskaintzen digu.



Ezkerraldean, Bixente Muñoz, bere laguntzailea Jon Ander Etxabe eta Manu Thalamas txapelduna txapelarekin

bar-restaurant
arrantzaleen
kofradia

pasad ramón iribarren

playa

puerto pesquero

tel. 943 64 42 12

pasad ramón iribarren s/n - nueva lonja-
20280 hondarribia (gipuzkoa)

Hemen zure opariak eros ditzakezu; PSP, PS2, filmeetako pertsonaiak...

The Big Orange

Puntuak opariengatik aldatu, Orange txartelarekin

Etxez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba

Aireportuko pista ez da luzatuko



Gipuzkoako Foru Aldundiak aireportua luzatzeko orain arte egindako ahalegin guztiek ez dute inongo eraginik. Izan ere, pista itsasoruntz azkartzeko proposamenak ez du Espainiako Sustapen Ministeritzaren begirunea eskuratu. Hortaz, Magdalena Alvarez Sustapen ministrak eskuartean duen Plan Zuzentzailearen baitan, OACIk agintzen dituen segurtasun neurriak bermatzeko aireportuaren operatibitatea murriztu nahi du.

Hondarribiko aireportuaren pista beraz ez da luzatuko. Hala adierazi zuen Magdalena Alvarezek, Espainiako Sustapen ministrak, Madrilgo Senatuan iragan maiatzaren 10ean egindako agerraldian. Honela, Gipuzkoako

Foru Aldundiak aurkeztutako Plan Zuzentzailearen bigarren helegite proposamena bazterturik gelditu da.

Gaur egun, Hondarribiko pistak 1.754 metro ditu luzee-ran. OACIk (Organización Internacional de Aviación Civil) hitzartutako segurtasun neurri berrien arabera, hirugarren mailako aireportuek (Hondarribikoa kasu) pistak dituenaz gain, 2008tik goiti beste 300 metrotako segurtasun eremua eduki beharko dute. Neurri honekin, larrialdi egoeretan hegazkina maneiatu ahal izatea bermatu nahi du elkarteak. Honela beraz, Sustapen Ministeritzak nahitaezko neurri honen betetzeko, aireportuaren baliatzea 1.454 metrotara mugatu nahi du, beste 300 metroak segurtasunezkoak bilakatzeko.

OTXOA JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN




HONDARRIBIA ETA IRUNGO EUSKARA

Hondarribiko eta Irungo hizkerak dialektologi alderditik aztertzea da liburu honen helburu nagusia: hizkuntz ezaugarri eta arau nagusien bilduma egin, eta zein ezaugarrietan diren berdinak eta zeinetan ez agertzea. Era berean, hizkerok euskalkien sailkapenean dute kokaguneari buruzko argibideak ematea



HONDARRIBIA IRUDITAN

Duela urte batzuk, udal artxiboak postal bilduma eskuratu zuen, XIX. mende bukaeratik, gure hiriko bizitza, arkitektura eta paisaia islatzen zituenena. Proiektu honen bidez, postalak interesatuen esku egotea lortu nahi da. Hori dela eta, postal hauek CD batekin argitaratu dira. Postal hauek, gaika multzokatuak, Martin Iturbe jaunak eta Jesus Mari Mendizabal "bizargorri"k idatzitako olerki eta bertsoen sarrera dute. Gainera CDan, hiriko kulturaren ondarea diren hainbat musika biltzen dira. Idazkera, irudia eta musika bat egiten diren proiektua.



POEMA

Lau liburuki kaxa batean: Bizimenez, Izadimenez, Jainkominez, Euskalminez. Bitoriano Gandiaga (Mendata, 1928-Arantzazu-2001) poeta handi etasentiberatasun berezikoa zela bagenekien, horren froga argia dira utzi zituen liburuak. Orain jakin da, ordea, beste poema asko utzi zituela idatzirik baina argitaratu gabe: koaderno nahiz orri solteetan, eskuz zein makinaz, ongi landuta edo zirriborroan. Gandiagaren idazlan horiek denak ikertzen ibili da haren obra ongi ezagutzen zuen batzorde bat, eta gaika antolatutako lau liburu argitaratuko dira orain, lau espezialistaren sarrera eta edizioarekin.



GUTI

Garai batean barku bakoitzean txakur bat izaten zen. Tripulazioko beste bat zen txakurra. Halakoa da Guti, txakur txikia, arratoi txakurra, txakur bizkorra eta bere kasakoa, marinel guztiak bezala.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriaren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Histori-aurretik frankismo-ra arte. Horretarako 15 historialariko taldearen lankidetzaz izan da Deustuko Uniber-tsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidagarritasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburu bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astiazaran eta Txomin Sagarzazu.



PASEOS POR LA CIUDAD

Hirian barrena irudimenez ibiltzen lagunduko dizu liburu honek, inguruari erreparatzeko eta etxe edo ikuspegi baten aurrean gelditzeko gonbitea egingo dizun testu baten laguntzaz. Testuarekin batera modu eraginkorrean, irudimena piztuko dizuten akuarelak, marrazkiak, irarlanak eta argazkiak azalduko zaizkizu.



**OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI**

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

**San Pedro 12 - HONDARRIBIA
Telf: 943 64 25 25**

Txuntxumela zure bio-supermerkatu txikia 1978tik

Maiatzak 6an BioKultura Feria 2006 ospatu zen Bartzelonan, eta denda onenaren saria jaso zuen Txuntxumela bio dendak bertan.

Hondarribian belar- denda bezala jaiotakoa, 27 urtetako dedikazioa eta sektorean parte-hartzen bio supermerkatu txikian bilakatu gaitu. Hemen Bio kontzeptuarekin lotuta bizitzeko beharrezko gauzak aurki daitezke.

Gure berdintasun ezaugarria bezeroarekin daukagun tratu pertsonala da. Horregatik, informazio osorik eta ona ematea guretzat ezinbestekoa da.

Gure produktuak ospetsuagoak eta hurbilagoak egiteko ahal den guztia egiten dugu dastatze eta pro-

mozio berezien bidez. Ziur gaude kalitatezko elikagaiak ezagutza egiteko erraztasunak ematea ezinbestekoa dela kontsumo handiagoa sortzeko. Kontsumo honek laguntzen digu garapen jasagarrian egiten ditugun inbertsioak (Nobles del Segurako egurrak, Triodos bank, etc...) haundiagoak izan daitezen.

Urte honekin hirrugarren aldiz izango da Irungo Bio-terra Ekologiko Feriara aurkeztu garelako stand batekin Bioaren mundua ezagunarazteko.

Eskerrik asko "Vida Sana" eta "Biocultura" txikitaz gogoan izateagatik. Onarpen hau Bio sentimentuaren inguruan pentsatzen segitzeko estimulua bat delako eta garapenaren aldeko apostua egiteko.

**TXUNTXUMELA
EZAZU!!**

Bioagurrak Junkal eta Maiteren partetik

zure bio-supermerkatu txikia

txuntxumela
tu pequeño **super Bio**

ETXEBIZITZETARA ERAMATEN DUGU

 **SERVICIO A DOMICILIO**

HENDAIA-HONDARRIBIA-IRUN
Santiago kalea, 33.
✉ biotxuntxu@terra.es
☎ 943 641450




ZER BERRI ONGI ETORRI BIDEO KLUBEAN



DVD

JARHEAD EL INFIERNO VA POR DENTRO

Filme honi kritikak balorazio ona eman dio. "Jarheads" (cabeza bote) gazte talde baten istorioa kontatzen du Golko gerran. Swoff-en bizitza frankotiratzale bezala erdi ekialdeko basarmortuetan kontatzen du. Honek eta bere adiskideak gerra batean borrokatzen daude ezer ulertu gabe eta ados ez daude kausagatik.



DVD

FUERA DE CONTROL

Will Graham ilun iraganarekin gizon bat da, bere lehen bizitza arriskutsua kasurik egin gabe bizitzen dena. Bere anaia desagertu ondoren, berriro itzultzen da ikertzeko. Berehala jakingo du egoera arraroetan hil dela. Inork ez dakite ezer honi buruz baina suizidio bat dela dirudi. Willek ez du zer gertatu zen jakin gabe geratu nahi eta bere anaiari mendekatu nahi dio. Bere ilun iraganari berriro itzuli beharko du.



DVD

DOOM

Marte dagoen ikerketa estazio batean zerbait gaizki aterata da. Komunikazioak huts egin dira, baina hartu diren mezuak ez dira batera lasaigarriak. 5 mailako berrogaialdi jarri da eta bakarrik atera eta sar daitezke talde bat: arin erantzunako eskuadra bat. Honek, oso ondo armatuta, misioi bat izango du: inork ez du hortik bizirik atera behar. Filme honek joku batean oinarrituta dago.



DVD

MEMORIAS DE UNA GEISHA

Filme hau Arthur Goldenen eleberrian oinarrituta dago. Geisha baten bizitza kontatzen du. Errauskine ipuina bezala parekatu daiteke.



DVD

MATCH POINT

Chris-en istorioa kontatzen du, teniseko irakasle batek bi emakume artean dagoena. Bere eskontzak ospea ematen dio baina bere pasioa izango den bere koinatan dago. Amerikar emakume ederra da Chris eta bere emakume Cloe artean jartzen dena. Tom-ek Chloen neba beste gertaerak eragingo ditu.



DVD

CRASH COLISION

Gizon baten gorputza agertzen da errepide batean. Honen eraginez, pertsona batzuen bizitza nahasiko da: polizia eta bere lankidea, fizikal baten emakumea, irandar dendari bat, dirudun afroamerikar bikote bat. Beraien artean erlijio eta arrazista arazoak gertatuko dira.

VIDEO CLUB

ONGI ETORRI

✓ Argazkien errebelatzea: ✓ Argazkilaritzako materialeak
-Eskaintza 13x18
-Eskaintza 2x1
-Errebelatu zure argazkiak CD formatoan jasotzea

✓ CASIO Erloju eta iratzargailuak
✓ Zilarra: eraztunak, belarritakoak, kate, pultsea, piercing...
✓ Bitxiak: urrez txapatuak, kalitate handikoak

San Pedro, 53 -bajo • Tel.: 943 64 41 53 • Fax: 943 64 47 01

20280 HONDARRIBIA

Maiatzeko ekintzak

HEZKUNTZA

EHUko UDA IKASTAROAK; EUROPAR IKASTAROAK:

Ekaina eta Iraia artean, ikastaro, mintegi, mahai inguru, tailer eta hainbat jarduera antolatu dituzte europar gaiak ardatz moduan hartuz.

Izen emateko epea: Maiatzaren 2tik 31era, Ekainaren 1etik aurrera %20 gehiago balio du.

Informazio gehiago eta izen emateak:

Miramar jauregia, 20007 Donostia

Cursosverano@sc.ehu.es

www.sc.ehu.es/cursosverano

LANBIDE HEZIKETA ZIKLOETAN IZEN EMATEAK
EKAINAK 1ETIK 7RA EGIN BEHAR DIRA.

LEHIAKETA

XII."MADALENAK 2006" KARTEL LEHIAKETA

Edukia: Teknikak marrazkia edo pintura, nahiz argazkigintza, "collage" edo antzeko beste batzuk izan daitezke. Karteletan ondoko inskripzioa agertuko da: "Madalenak 2006" eta gaia kartelak iragartzen dituen jaiekin erlazionatuta egongo da.

Epea: Ekainak 2.

Informazio gehiago: Oreretako Udala
Herriko enparantza z/g

Telefonoa: 943449606



ONDARTZ EDERRA

ONDARTZ EDERRA

Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56



**LA HUERTA
DEL PAÍS**

Fruitu eta barazkiak
freskoak eta
kalitatezkoak

www.lahuertadelpais.es

Nola du izena kale honek ?

Oraingoan ere heldu gara irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Batzordean jasotzen den gutun kopurua ikusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ohartu gara. Ia guztiek erantzun egokia ematen dute.

Iazko azken alean jarritako galderari ia 70 pertsonak erantzun diote era egokian. Jasotako gutun guztien artean, irabazlea **M^a Belen Aranberri Eizagirre** da. Berak esan bezala, kale haren izena Bitoriano Juarista da.

Orain luzatzen dizuegun galdera antzekoa da. Alde Zaharreko kale baten izena da galdetzen dizueguna. Askotan handik igarotakoak gara, baina ziurrenik gutxi izango dira haren izena ezagutzen dutenak. Oso kale txikia da, agian herriko txikiena izango da.

Erantzuna jakindakoan, bidali Udal Euskara Batzordera ekainaren 10a aurretik, Beko Errota jatetxean bi pertsonentzako afaria zuentzat izan daiteke eta.



SAGARDOTEGIA JATETXEA

*Horra hor goian errota
irina pur pur ihota
ondo jan eta edan paketsu eta alai
hor duzue Beko-Errota*



JAIZUBIA • Tel. 943 64 31 94 • 20280 HONDARRIBIA

Etxetxiki baserriaren historia



Gogoratuko duzuenenez, duela ia hiru urte, lau hondarribiarrek herriko baserriei buruzko liburu bikain bat argitaratu zuten. Fermin Olaskoaga, Luis Mari Elozegi, Jose Ramon Gebara eta Koldo Ortégak egindako liburura jo dugu, baserri tipiko baten historia jakin ahal izateko, lehen zena eta gaur egun dena parekatu asmoz.

Bertan esaten denez, Etxetxiki baserriari buruzko lehen aipamena Elizaren 1849ko Matrikula liburuan agertzen da. Aurrerago liburuak dionenez, jabego erregistroan, 1879an paperak egiterakoan, Fernando Amunarriz arotzak bere izenean jarri zuen, bere aita Nicolasengandik 30 urte aurreragotik beste bi baserriekin batera jaso egiaztatu ondoren. Sei hilabete geroago, bere lehengusina Canuta Amunarrizi saldu zion.

1886an, azken honen bi alaba umezurtzen tutoreak Felix Labordari saldu zion. 1936an, baserria Benigna Laborda bere alabaren izenean agertzen da, eta 1948an aldiz, bere alaba Guadalupe Labordaren izenean.

Baserri hau izendatzeko erabili diren izenen artean, Bordatxiki, Gazterazu edota Gazterena erabiltzen dira. Gaur egun etxebizitza soila da, baina urte askotan jatetxea izan da.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047



arroka berri
restaurante

Hiqer Bidea, nº6 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com

Apirila 2006

FERMIN OLASKOAGAK jasotako datuak:

JAIOTZAK

2an: ENEKO Ochoa Ocio, Hondarribiko Jose eta Irungo Arantzazuren semea.

4an: IRADI Auzmendi Gojenola, Lazkaoko Xabier eta Hondarribiko Maria Begoñaren alaba.

5ean: MIREN Poncela Susperregi, Irungo Juan Jose eta Hondarribiko Amaiaren alaba.

5ean: BERTA Ramos Izard, Abantoko (Bizkaia) Juan Antonio eta Bartzelonako Martaren alaba.

7an: EIDER Arrospide Gallego, Hondarribiko Iñigo eta Irungo Olga-ren alaba.

11an: IRATI Arrieta Alkain, Hondarribiko Asier eta Hondarribiko Maieren alaba.

12an: MARIUS-MIHAI Brazdau, Deta-ko (Errumania) Mihai Mircea eta Nasava-ko (Errumania) Luminita Ramonaren semea.

14an: MIKELE Oronoz Martin, Hondarribiko Domingo eta Irungo Nuriaren alaba.

17an: ODIN Gutierrez Gamindez, Donostiako Raul eta Donostiako Asuncionen semea.

24an: INGE Errazkin Rodriguez, Hondarribiko Joseba eta Donostiako Monikaren alaba.

30an: ERIKA Badiola Zalakain, Hondarribiko Iñaki eta Tafallako Yolandaren alaba.

30an: ADRIANA Badiola Zalakain, Hondarribiko Iñaki eta Tafallako Yolandaren alaba.

EZKONTZAK

1ean: FRANCISCO JOSE Rathmam Castillo, Frankfurt-ko (Alemania), eta **MARIA JOSE BIBIANA Lekuona Arbelaiz**, Hondarribikoa.

1ean: FRANCISCO DE BORJA Orbegozo Murua, Donostiakoa, eta **MARTA Sanchez Moreno**, Donostikoa.

2an: JOSE IGNACIO Hernandez Vicente, Donostikoa, eta **IRMA Fernandez Soroa**, Hondarribikoa.

8an: ASIER Madarieta Juaristi, Gernikakoa, eta **MARTA Amunarriz Ageda**, Hondarribikoa.

29an: IOSU MIKEL Alvarez Larrarte, Hondarribikoa, eta **ANA de la Fuente Lanz**, Berakoa.

29an: FRANCISCO DE BORJA Calavia Pineda, Irungoa, eta **ANGERLI da Silva**, Uniao dos Palmares-koa (Brasil).

29an: FRANCISCO JAVIER Perez Manso, Errenterikoa, eta **SILVIA Roman Gomez**, Irungoa.

HERIOTZAK

6an: EZEQUIELA Alisal Fica, Portugaletakoa, 83 urte, Mourlane Mitxelena kalean.

7an: PAULA Arocena Alberdi, Hondarribikoa, 84 urte, Mendelun.

7an: CARMEN Larrarte Amunarriz, Hondarribikoa, 86 urte, San Gabriel egoitzan.

10an: PILAR Aleman Orduña, Yesakoa, 94 urte, Higer bidean.

14an: DELFINA Fernandez Fernandez, Pradejon-koa (La Rioja), 81 urte.

14an: FRANCISCO Mendizabal Mendizabal, Hondarribikoa, 78 urte, Zubieta kalean.

23an: RAFAELA Karrera Olaskoaga, Hondarribikoa, 93 urte, Iparkalean.

18an: ROBERTO Marquet Perez, Tolosakoa, 81 urte, Pasaia kalean.

30an: MANUEL Galarreta San Martin, Altzakoa, 91 urte, Bera kalean.

APIRILAKO EGURALDIAREN DATUAK. (Hondarribiko aireportutik jasoak).

Temperaturarik gorena:	27° C, hilaren 4an.
Temperaturarik beherena:	3,3° C, hilaren 11an.
Bataz besteko tenperatura:	11° C.
Bataz besteko hezetasuna:	% 72
Euri-litroen kopurua:	61,0 litro.
Egunik euritsuena:	hilaren 21an 22,5 litro.
Euri indartsuenen unea:	hilaren 10ko 7,05etan, 25,2 litro.
Egun euritsuak:	13 egun.
Elur egunak:	0 egun
Kazkabar egunak	egun 1
Ekaitz egunak	2 egun
Behe-laino egunak:	2 egun
Ihintz egunak:	6 egun
Haizea >50 Km/ord.	2 egun
Eguzki kopurua:	162,2 ordu
Bataz besteko presioa:	1016,6 milibar
Presiorik gorena:	1025,2 milibar, hilaren 11an
Presiorik beherena:	999,3 milibar, hilaren 4an
Haizerik indartsuena:	hilaren 15eko 1,33tan, 65 Km/ord.

ARRANTZALE KOFRANDIAN APIRILAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK

Txitxarroa (*Trachurus trachurus*): 17.554 kilo.
Antxoa (*Engraulis encrasicolus*): 21.677 kilo.
Makarela (*Scomber japonicus*): 14.863 kilo.
Boga (Boops boops): 444 kilo.
Sardina (*Sardina pilchardus*): 60-450 kilo.
Berdela (*Scomber scombrus*): 719.814 kilo.
Korrokoi (*Chelon Labrosus*): 202 kilo.
Muxar handia (*Diplodus sargus*): 4.127 kilo.
Bestelakoak: 76 kilo.

APIRILAKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 306 euskaraz, 954 gaztelaniaz eta 87 bestelakoak. Guztira: 1347 liburu.

Ekarri diren liburu berriak: 117 euskaraz, 99 gazte-

laniaz eta 29 bestelakoak. Guztira: 245 liburu.
Bazkide berriak: 21 gizon eta 21 emakume. Horietatik 27 heldu eta 15 haur. Guztira 42.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak:

Euskeraz: CAMINO, Isabella.-Etxaldeko abenturak.
Gaztelaniaz: GAGO, M.-El Guerrero del Antifaz.

Helduak:

Euskeraz: MAIA, Jon.-Riomundo.
Gaztelaniaz: BROWN, Dan.- La Conspiración.

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK APIRILAN

Altak: Jaiotzak: 12, eta kanpotik etorriak: 76

Bajak: Hildakoak: 9, eta herritik joanak: 59

Biztanle kopuru orokorra: 16.306 bizilagun.

Joski.

. LENTZERIA ARROPA
. HAURRENTZAT ARROPA

Santiago Kalea, 21 Tel.: 943 64 17 65
20280 HONDARRIBIA



10 HENDAYE (Côte Basque) - La Bidassoa - Vue sur Fontarrabie



Tito